Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2015eko martxoaren 10a, asteartea — 46 — Martes, a 10 de marzo de 2015

UDAL ADMINISTRAZIOA — 7 — ADMINISTRACIÓN MUNICIPAL

## ASTIGARRAGAKO UDALA

*Iragarkia*

Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70.2 artikuluanezarritakoa betez eta bertan aurreikusitako ondorioetarako, jakinarazten da Udalbatzak, 2015eko otsailaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuela behin betiko onespena ematea Astigarragako gazteen aisialdirako lokalak arautzen dituen Udal Ordenantza.

Aipameneko Ordenantzaren testu bateginaren eduki osoa argitaratzen da.

Erabaki honen aurka, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Sailean, Bilbon, honako hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita bi hilabeteko epean.

Astigarraga, 2015eko martxoaren 3a.—Andoni Gartzia Arruabarrena, alkatea. (2166)

### ASTIGARRAGAKO GAZTEEN AISIALDIRAKO LOKALAK ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA

### ARRAZOIEN AZALPENA

Azkeneko urteetan gazteentzako lokal kopuruak gora egin du nabarmen Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan.

Gure gizartean gero eta gazte gehiago elkartzen da etxebizitzetako edo bestelako eraikinetako beheko solairuetako lokaletan aisialdiaz gozatzera.

Hala ere, zenbaitetan, gazteek lokal horiek erabiltzeak, zenbait ondorio ekartzen ditu eta gatazkak sortzen dira lokaletako erabiltzaileen eta etxebizitzetako bizilagunen artean, zaratagatik, garbitasun faltagatik, pertsonak etengabe sartu eta irteten direlako etab.

Espainiar Konstituzioak 48. artikuluan honakoa ezartzen du «Herri-aginteek gazteek politika, gizarte, ekonomia, eta kultura-garapenean parte hartze aske eta eraginkorra izateko bideak bultzatuko dituzte».

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak bizilagunen behar eta nahiak asetzeko eskumenak ematen dizkie udalerriei, eta aipatutako legearen 25.2m) artikuluak hain zuzen ere, kultur ekintza eta instalazioen inguruko eskumenak ematen dizkie udalerriei.

Horregatik, lokal hauek zein baldintzetan erabili behar diren arautzeko Ordenantza bat behar da, gazteek ondo pasatzeko duten eskubidea eta bizilagunek lasai egoteko eta atseden hartzeko duten eskubidea uztartzeko, eta instalazioen eta lokalen segurtasun baldintzak bermatzeko.

## AYUNTAMIENTO DE ASTIGARRAGA

*Anuncio*

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/85 de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local y a los efectos en él previstos, se hace público que en el Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 26 de febrero de 2015, se acordó aprobar definitivamente la Ordenanza municipal reguladora de los locales de ocio para jóvenes de Astigarraga.

Se procede a la publicación íntegra del contenido del texto de la Ordenanza referida.

Contra el presente acuerdo los interesados podrán interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de la publicación del Reglamento en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Astigarraga, a 3 de marzo de 2015.—El alcadle, Andoni Gartzia Arruabarrena. (2166)

### ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LOS LOCALES DE OCIO PARA JÓVENES DE ASTIGARRAGA

### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

En los últimos años el fenómeno de los locales juveniles ha crecido de manera considerable en muchos de los municipios de la Comunidad Autónoma Vasca.

En nuestra sociedad son cada vez más los jóvenes que con el objetivo de disfrutar junto a otros jóvenes de los momentos de ocio y esparcimiento se reúnen en locales ubicados en las plantas bajas de los edificios residenciales o no residenciales.

Sin embargo la utilización de dichos locales por los jóvenes suelen ser por lo general, origen de conflictos entre los usuarios de los mismos y la comunidad de vecinos del inmueble en el que se ubican por las molestias de ruido, falta de limpieza, entrada y salida permanente de personas, etc., que dicha actividad genera.

La Constitución Española establece en su artículo 48 que los «poderes públicos promoverán las condiciones para la participación libre y eficaz de la juventud en el desarrollo político, social, económico y cultural».

La Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local atribuye a los municipios diferentes competencias para satisfacer las necesidades y aspiraciones de la comunidad vecinal y concretamente el artículo 25.2.m) del citado texto legal otorga a los municipios competencias en materia de actividades, instalaciones culturales y ocupación del tiempo libre.

Es por ello que se hace preciso regular mediante una Ordenanza las condiciones en las que debe realizarse el uso de dichos locales, conciliando el derecho de los jóvenes a divertirse con el derecho de los vecinos a la tranquilidad y al descanso, así como a garantizar las condiciones de seguridad de las instalaciones y el local para todos ellos.

EK\CV GAO-I-2015-02166

## I. TITULUA

## XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua. Helburua.*

Ordenantza honen helburua hauxe da: aisialdiko lokalek, segurtasun eta higiene aldetik beharrezkoak diren gutxieneko baldintzak errespetatzeko, bete behar dituzten betekizunak testu bakar batean jasotzea eta, lokalok darabiltenentzat eta etxe barruko bizilagunentzat, gogaikarritasun eta arrisku-mota guztiak saihestea.

*2. artikulua. Definizioa.*

Ordenantza honen ondorioei dagokienez, aisialdirako lokaltzat hartuko dira, diru-irabazi asmo barik, pertsonek, bereziki gazteek, beraien aisi denboran eta topaleku legez, elkartzeko eta batzeko erabiltzen dituzten barrutiak, baina merkataritza entitateek eta elkarte gastronomikoek egiten dituzten jarduerak izateke eta udalak hala sailkatzen dituenak, ordenantza honek jasoko dituen gainontzeko betebeharrak betetzen dituztenean.

*3. artikulua. Aplikazio-eremua.*

Ordenantza honek Astigarragako bizitegi zein industria izaerako hirilurrean kokatuak dauden lokaletan izango du eragina.

Honako gazte lokalei ezarriko zaie:

— Gaur egun dauden lokalei.

— Gerora irekiko diren lokal berriei.

— Titularitate aldaketa izango duten lokalei.

Ikus III. Eranskina: gazte lokalak egotea baimenduko diren kaleak. Planoa.

*4. artikulua. Kanpoan uzten diren jarduerak.*

Ordenantza honen aplikazio eremutik kanpo geratzen dira familia-ospakizunak edo izaera pribatu hutsekoak.

Lan, erlijio, politika edo sindikalgintza arloko jarduerak egiten diren lokalen kasuan, beste araubide zehatzagorik izan ezean, subsidiarioki ordenantza honen xedapenen arabera arautu daitezke.

Arautze honetatik espresuki kanpo gelditzen dira ostalaritzako jarduerak, hala nola taberna-, kafetegi- edo jatetxe-zerbitzuak, gastronomia-txokoak eta jendaurreko ikuskizunak eta jolas jardueren ordutegiak ezartzen dituen abenduaren 16ko 296/1997 dekretuan aipatzen diren jarduera guztiak ere.

*5. artikulua. Ordutegiak eta funtzionamendu-arauak.*

A) Ordutegia.

a) Gaueko 22:00etatik aurrera lokaletako ate eta leihoek itxita egon beharko dute.

b) Gaueko 22:00etatik goizeko 09:00etara ezingo da zarata gogaikarririk atera.

c) Gaueko 23,30etik aurrera lokalak itxi egingo dira eta ez dute inongo jarduerarik izango, ostiral, larunbat eta jaiegun bezperetan izan ezik, egun horietan 01,00ak arte irekita egon daitezkeela. Ordenantza honetan arautzen diren aisialdirako lokaletan ez da izango jendea bilduko lukeen inongo jarduerarik goizeko 10:00ak baino lehen.

d) Ordutegia ez errespetatzeagatik, zarata ateratzeagatik edo funtzionamendu arauak ez betetzeagatik salaketa egiaztatuak egonez gero, ordutegi berezia ezarri ahal izango zaio arauak hautsi dituen lokalari, bai eta diziplina araubidean agertzen diren neurri zuzentzaile edo zigorrak; arazoaren larritasunaren arabera, gazte lokala ixteko erabakia ere hartu ahal izango da.

B) Funtzionamendu arauak.

## TÍTULO I

## DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1. Objeto.*

La presente Ordenanza tiene por objeto establecer en un único texto las condiciones y requisitos mínimos que los locales de ocio de los jóvenes deben cumplir para respetar las condiciones mínimas de seguridad e higiene, y evitar todo tipo de molestias y riesgos para los propios usuarios así´ como para los vecinos del inmueble en el que se ubican.

*Artículo 2. Definición.*

A los efectos de la presente Ordenanza, se entiende por local de ocio todo aquel recinto destinado a actividades sin ánimo de lucro que especialmente los jóvenes utilizan en su tiempo libre como espacios de encuentro y socialización, sin tratarse de actividades realizadas por entidades mercantiles ni de sociedades gastronómicas, y que sean calificados como tales por el Ayuntamiento al cumplir con los requisitos exigidos en esta Ordenanza.

*Artículo 3. Ámbito de aplicación.*

Quedan sujetos al cumplimiento de esta Ordenanza todos los locales de carácter tanto residencial como industrial ubicados en suelo urbano.

Se aplicará a los siguientes locales juveniles:

— Locales existentes en la actualidad.

— Locales que se abrirán en un futuro.

— Locales que sufrirán cambio de titularidad.

Ver Anexo III: calles en las que se permitirá la existencia de locales juveniles. Plano.

*Artículo 4. Actividades excluidas.*

Se excluyen del ámbito de aplicación de esta Ordenanza las celebraciones de carácter estrictamente familiar o privado.

Los locales donde se realicen actividades de ámbito laboral, religioso, político o sindical se regularán de manera subsidiaria por las disposiciones de esta Ordenanza a falta de normativa específica.

Quedan expresamente excluidas de la regulación de esta Ordenanza las actividades y establecimientos hosteleros como bares, cafeterías o restaurantes, txokos gastronómicos y todas aquellas actividades relacionadas en el Decreto 296/1997, de 16 de diciembre, sobre horarios de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas.

*Artículo 5. Horarios y normas de funcionamiento.*

A) Horario.

a) Las puertas y ventanas de los locales deberán permanecer cerradas desde las 22:00 horas en adelante.

b) No podrán producirse ruidos molestos desde las 22:00 horas hasta las 09:00 horas.

c) Los locales se cerrarán a partir de las 23:30 horas y no tendrán actividad alguna, excepto los viernes, sábado y vísperas de festivos, días en los que podrán permanecer abiertos hasta las 01:00 horas. En los locales de ocio regulados por la presente Ordenanza no se ejercerá actividad alguna que congregue a personas en el interior de los mismos antes de las 10:00 horas.

d) En el caso de que existan denuncias comprobadas de vulneración de horarios, molestias por ruidos o incumplimiento de las normas de funcionamiento podrá establecer el Ayuntamiento un horario específico para el local infractor, así como medidas correctoras o sanciones que se recogen en el régimen disciplinario, pudiéndose tomar también la decisión de cerrar el local juvenil en cuestión.

B) Normas de funcionamiento.

EK\CV GAO-I-2015-02166

Lokaletan ondorengo funtzionamendu arauak bete beharko dira:

— Lokaletako erabiltzaile guztiak 16 urtetik gorakoak izan beharko dute.

— Jarduera lokal barruan bakarrik gauzatuko da; ez dago baimenik jarduera hori kalean edo bide publikoan gauzatzeko.

— Ez da aterako elkarbizitza edo auzoko jendearen atsedena apurtuko duen zaratarik kalean eta beste gune publiko batzuetan (plazak, parkeak).

— Ezingo da gune publikoa okupatu aulkiekin, mahaiekin edo antzekoekin; jendea ere ezingo da bildu edo batu lokalaren kanpoko aldean; ibilgailu-garbiketarik edo konponketa bezalakojarduerarik edo bestelakorik ere ezingo da burutu.

— Lokalera sartzerakoan edo handik irteterakoan zaratekin kontu handia eduki behar da oihuka, kantuan, txistuka edo zarata aterako duen beste ezertan aritzea saihestuz.

— Lokalaren kanpoko aldea eta inguruak behar bezain garbi eduki behar dira eta lokalean egindako jardueraren batean erabilitako gauzak edo bertan sortutako hondakinak ez dira botata utziko.

— Debekatua dago eta ezin izango da burutu gazteentzako lokalen jarduerarekin lotuta ez dagoen ekintzarik, hala nola: edozein motatako produktuen salerosketa, jarduera gogaikarriak egitea etab.

— Debekatua dago produktu sukoiak biltzea, berogailuetarako erabiltzen direnak izan ezik.

— Debekatua dago eta ezin izango da sukalderik, laberik, frijigailurik edo plantxarik jarri, ez eta kea araztea edo erauztea behar duen beste etxe tresnarik ere, lokalak kea ateratzeko hodi esklusiborik ez badu.

— Debekatua dago eta ezin izango da lokalean 65 dBtik gorako igorpen bolumena duen telebista, irrati edo musika-aparaturik ipini, lokalak horretarako behar den bezalako isolamendu akustikorik ez badu.

— Debekatu egingo dira inguruan bizi diren auzokoentzako gogaikarriak diren jarduerak edo higiezinaren segurtasuna arriskuan jartzen dutenak.

— Zeharo debekatua dago material piroteknikoa erabiltzea.

— Ezin izango da gainditu I. Eranskinean zehazten den aforoa edo okupazioa.

— Gazte lokal horiek ezingo dute ohiko egoitza edo etxebizitza izaera izan erabiltzaileentzat, eta ezingo dira erabili bertan gaua egiteko.

— Debekatua dago lokalean animaliak bakarrik uztea eta inoiz ezingo dute gaua bertan pasa.

II TITULUA

ADMINISTRAZIO PROZEDURA

*6. artikulua. Gazte Lokalen Erregistroan izena emateko eskabidea.*

1. Ordenantza hau indarrean jartzen den egunean dauden lokal guztiek edo ondoren sortuko direnek Gazte Lokalen Erressgistroan izena emango dute. Horretarako, Alkateari bidaliko zaio eskaera eta bertan, ondorengo datuak aipatu beharko dira:

— Lokalaren erabiltzaileen izen-abizenak, Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia, eta harremanetarako telefonoa. Eta hauek adinez txiki izanez gero, bere guraso edo tutoreena.

— Lokalaren jabearen datuak: izen-abizenak eta telefonoa.

Los locales se adecuarán a las siguientes normas de funcionamiento:

— Todos los usuarios del local deberán ser mayores de 16 años.

— La actividad se desarrollará exclusivamente en el local, no estando permitido que se desarrolle en la vía pública.

— No se producirán ruidos que dañen la convivencia y el respeto al descanso de los vecinos en las vías públicas y en otros espacios públicos (plazas, parques,).

— No podrá ocuparse el espacio público mediante sillas, mesas, etc., ni se concentrarán personas en el exterior del local ni podrán realizarse actividades de reparación o limpieza de vehículos u otras.

— Se deberá tener especial cuidado con los ruidos producidos al acceder o abandonar el local, evitándose gritos, cánticos, silbidos, etc.

— El exterior del local y sus inmediaciones deberán estar en condiciones higiénicas adecuadas, debiendo evitarse el abandono de objetos o residuos derivados de la actividad del local.

— Queda expresamente prohibido todo tipo de actividades que no tengan relación con la actividad definida de locales para jóvenes como pueden ser la compraventa de productos de cualquier tipo, la realización de actividades molestas, etc.

— Queda expresamente prohibido el almacenamiento de combustibles, excepto el destinado a uso de calefactores.

— Queda expresamente prohibida la instalación de cocinas, hornos, freidoras, planchas y cualquier otro electrodoméstico que necesite para su funcionamiento depuración y extracción de humos salvo que el local tenga conducto exclusivo de evacuación de humos.

— Queda expresamente prohibida la utilización de televisión, radio o aparatos de música con volumen de emisión mayor de 65 dB salvo que el local tenga aislamiento acústico adecuado para ello.

— Se prohíben aquellas actividades que produzcan molestias a los vecinos del entorno o pongan en riesgo la seguridad del inmueble.

— Queda totalmente prohibido el uso de material pirotécnico.

— No podrá superarse el aforo detallado en el Anexo I.

— Estos locales juveniles no podrán tener carácter de residencia o vivienda para los usuarios, y no podrán ser utilizados para pernoctar.

— Se prohíbe la permanencia de animales solos en el local y en ningún caso podrán estos pernoctar en el mismo.

TÍTULO II

PROCEDIMIENTO ADMINISTRATIVO

*Artículo 6. Solicitud para la inscripción en el Registro de Locales Juveniles.*

1. Todos los locales existentes cuando esta Ordenanza entre en vigor o aquellos que se creen posteriormente se inscribirán en el Registro de Locales Juveniles. Para ello, se enviará la solicitud al Alcalde y constarán en ella los siguientes datos:

— Nombre y apellidos de los usuarios del local, número del Documento Nacional de Identidad y teléfono de contacto. Y en caso de que sean menores de edad, las de sus padres o tutores.

— Datos del propietario del local: nombre y apellidos y teléfono.

EK\CV GAO-I-2015-02166

— Lokalaren kokalekua eta deskribapena: kalea eta zenbakia, azalera osoa eta atalkakoa (bainugela, biltegia). Segurtasun neurriak jarrita dauden guneen planoa eta zehaztapena.

— Lokalaren jabetza egiaztatuko duen dokumentua edo alokairuaren kontratua.

— Jabearen aitorpen erantzulea, esanaz Ordenantzaren eta hortik eratorriko diren erantzukizunen jakinaren gainean dagoela.

— Erantzukizun zibileko aseguruaren kopia. Sortuko den lokal baterako denean eskabidea, erantzukizun zibileko aseguruaren aurrekontuaaurkeztu beharko da. Azkenean erabilera baimena lortzen baldin bada, aste beteko epean aurkeztu beharko da erantzukizun zibileko aseguruaren kopia.

*7. artikulua. Aurretiazko komunikazioari atxikitzea.*

Jarduera hasi aurretik, ondoko dokumentazio hau aurkeztu beharko da udaletxean:

— Jardueran aritzeko aurretiazko komunikazioa.

— Dagokion teknikariak egindako ziurtagiria, jarduera edota instalazioak proiektura eta aurkeztutako agiri teknikoetara egokitzen direla eta indarrean dagoen aplikaziozko legedira egokitzen dela egiaztatzen duena.

— Memoria teknikoa, horretarako eskumena duen profesional batek egindakoa. Memoriaren edukia II. Eranskinean zehazten dena izango da. I. Eranskinean zehazten diren baldintzak bete egiten direla egiaztatu behar da. Baldintza horiek jardueran aritzerakoan errespetatu beharreko neurri zuzentzailetzat joko dira.

— Obra proiektudunak egin badira, orain arte esandakoaz gain, likidazioa eta obraren amaierako ziurtagiria ekarri behar dira.

— Erantzukizun zibilaren aseguru-poliza duela frogatzen duen egiaztagiria, 12 artikuluan aipatzen den edukiarekin.

Aurretiazko komunikazioan lokalaren arduradun eta jardueraren titular legez diharduten gazteen datuak azaldu behar dira.

Ezingo dira izan adin txikikoak.

Aurretiazko komunikazioak, orokorrean, jardueran aritzeko baimena emango du aurkezten den egunetik bertatik, betiere, udalari atxikitzen zaizkion egiaztatze- ikuskatze- eta kontrol eskumenen kaltetan izan gabe. Udalak, bere aldetik, neurri zuzentzaileak hartzeko agindua eman dezake edo, Ordenantza honetan edo aplikagarria den gainerako arauek ezarritako baldintzak ez direla bete egiaztatuz gero, baita jarduera ixteko agindua eman ere.

*8. artikulua. Obra-lizentzia.*

Lokala egokitzeko edozein eratako obraren bat egin beharko balitz, egin nahi den obra horri dagokion lizentzia eskatu behar da.

*9.- artikulua. Baldintzak betetzen diren egiaztatzea.*

Ikuskaritza-bisita egin ondoren, aisialdirako lokal horrek Ordenantza honetako betebeharrak edo baldintzak betetzen ote dituen egiaztatzeko txostenean honakoak jasoko dira: lokalaren. kokapena, jardueraren titularrak, gehieneko aforoa edo edukiera baimendua eta derrigorrez betebeharreko baldintzak edo neurri zuzentzaileak. Neurri zuzentzaileok, Ordenantza honetan agertzen direnak izango dira gutxienez.

Lokaletako titularrek derrigorrez eduki behar dute eskura edo ikusteko moduan udal administrazioak luzatutako dokumentua, egiaztapenari dagozkion datuak jasotzen dituena alegia.

— Ubicación del local y descripción: calle y número, superficie total y por secciones (cuarto de baño, almacén). Plano y precisión de las zonas donde están instaladas las medidas de seguridad.

— Documento o contrato de alquiler que certifique la propiedad del local.

— Declaración responsable del propietario en la que manifiesta estar al corriente de las responsabilidades de la Ordenanza y de las responsabilidades que de ella se deriven.

— Copia del seguro de responsabilidad civil. Cuando se trate de un seguro para un local de futura creación, se deberá presentar el presupuesto del seguro de responsabilidad civil. Si finalmente se logra el permiso de uso, la copia del seguro de responsabilidad civil deberá presentarse en el plazo de una semana.

*Artículo 7. Sujeción a comunicación previa.*

Previamente al inicio del ejercicio de la actividad se deberá presentar en el Ayuntamiento la siguiente documentación:

— Comunicación previa para el ejercicio de la actividad.

— Certificación expedida por técnico competente que acredite que la actividad y/o las instalaciones se adecúan al proyecto y a la documentación técnica presentada y que cumple toda la normativa aplicable en vigor.

— Memoria técnica redactada por profesional competente. El contenido de la memoria será el detallado en el Anexo II. Deberá acreditarse que se cumplen las condiciones establecidas en el Anexo I que tendrán carácter de medidas correctoras que se deben respetar en el ejercicio de la actividad.

— En el caso de haberse realizado obras con proyecto deberá de aportarse además la liquidación y certificación final de obra.

— Acreditación de la suscripción de una póliza de seguro de responsabilidad civil, con el contenido señalado en el artículo 12.

En la comunicación previa figurarán los datos de las personas que actúen como responsables del local y titulares de la actividad que no podrán ser menores de edad.

No podrán ser menores.

La comunicación previa permitirá con carácter general el ejercicio de la actividad desde el día de su presentación sin perjuicio de las facultades de comprobación, control e inspección que tenga atribuidas el Ayuntamiento, pudiendo ordenar la adopción de medidas correctoras o incluso la clausura de la actividad si se acredita el incumplimiento de las condiciones establecidas en la Ordenanza o en el resto de normativa aplicable.

*Artículo 8. Licencia de obras.*

Si fuera precisa la realización de cualquier tipo de obra para el acondicionamiento del local será además necesario solicitar la correspondiente licencia de obras.

*Artículo 9. Comprobación del cumplimiento de las condiciones.*

Tras la visita de inspección se emitirá un informe de comprobación del cumplimiento de las condiciones exigidas por la presente Ordenanza, en el que se hará constar el emplazamiento del local, la titularidad de la actividad, el aforo máximo permitido y las medidas correctoras de obligado cumplimiento que en todo caso serán como mínimo las recogidas en la presente Ordenanza.

Los titulares de los locales están obligados a tener disponible el documento expedido por la Administración municipal en la que se hagan constar los datos referidos a la comprobación.

EK\CV GAO-I-2015-02166

*10. artikulua. Erregistratu gabeko lokalak.*

Bidezko izan daitezkeen bestelako zigorrak baztertu gabe, lokal batek Ordenantza honek ezartzen dituen baldintzak ez dituela betetzen jakindakoan, honako neurri hauek hartuko dira:

a) Lokala erregularizatu egin badaiteke, erantzuleei eskatuko zaie haren egoera erregulariza dezatela. Horretarako, gehienez ere, hiru hilabeteko epea emango zaie, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik. Horrez gain, lokala itxi ahal izango da, hori egoki tzat jotzen baldin bada, interesatuei aurrez entzunda.

b) Lokala erregularizatzea ezinezkoa baldin bada, ordenantza hau betetzen ez duelako, lokala itxi egin beharko da, interesatuei aurrez entzunda.

*11. artikulua. Jarduteko eskubidea iraungitzea.*

Lokalak sei hilabete jarraian egiten baditu inongo jarduerarik egiteke, zein delarik ere arrazoia, eten horrek jardueran aritzeko baimenaren iraungitzea ekarriko du.

Berriro jarduerari ekin nahi izanez gero, hasi baino lehen aurretiazko komunikazio berri bat aurkeztu behar da. Lokalaren baldintzak eta aplikatzekoa den araudi teknikoa aldatzen ez badira, agiri edo dokumentu teknikoak ez dira berriro aurkeztu beharko.

*12. artikulua. Erantzukizun zibileko asegurua.*

Lokalek erantzukizun zubileko aseguru poliza izan behar dute eta poliza horren arrisku gutxieneko estaldura 150.000 € izango da lokalean gerta daitekeen edozein gertakizuni aurre egiteko eta lokalaren erabiltzaileak eta beren ondasunak eta baita hirugarrenak ere babesteko.

*13. artikulua. Kontratua.*

Ordenantza honetan arautүtako xederako erabiltzen diren lokal guztiek alokairu edo lagapen kontratu bat eduki behar dute, lokalaren jabeak eta lokalaren erabiltzaileek sinatuta.

Erabiltzaileak adin txikikoak izanez gero dokumentua bere gurasoek edo legezko tutoreek sinatu beharko dute.

*14. artikulua. Ezartzeko ahalmen orokorra.*

Ordenantza honetan ezarritako baldintza eta neurri zuzentzaileek arau orokorren izaera izango dute eta ordenantzaren menpeko lokal guztietan aplikatuko dira. Hala ere, eta behar bezala arrazoitzen bada, Udalak ez betetzeko salbuespenen bat egin dezake ezohikoa den irtenbide egokiena proposatuz.

III. TITULUA

DIZIPLINA ARAUBIDEA

*15. artikulua. Ikuskaritza jarduera eta kontrolekoa.*

Lokalen eta instalazioen ikuskapena, eta bertan burutzen diren jarduerena, Udaltzaingoak burutuko du eta, espezializazio teknikoa behar den kasuetan, ikuskapen gaikuntza duten funtzionarioek ere burutuko dute. Azken horiek agintaritzaren agentetzat hartuko dira.

Helburu horretarako, udaleko zerbitzu teknikoek, behar besteko ikuskaritzak egingo dituzte instalazioak ondo funtzionatzen ote duten egiaztatzeko eta, halaber, ezarri zaizkien neurri zuzentzaileak eta Ordenantza honen I. eranskinean jasotzen diren baldintzak betetzen diren ikusteko.

Ikuskaritzak egin ondoren akta bat idatziko da beti, eta irregulartasunaren edo arau-haustearen arrazoi izan daitezkeen gertaeren deskribapena egingo da. Era berean, akta horretan, lokalaren arduradunak aurkezten dituen alegazioak jaso

*Artículo 10. Locales no registrados.*

Sin perjuicio de otras sanciones que puedan ser procedentes, al conocerse que un local incumple las condiciones establecidas por este Ordenanza, se tomarán las siguientes medidas:

a) Si el local puede regularizarse, se les pedirá a los responsables que lo regularicen. Para ello, dispondrán, como máximo, de un plazo de tres meses, salvo en los casos debidamente justificados. Además, el local podrá ser cerrado, si la medida se considera adecuada, previa audiencia a los interesados.

b) Si no es posible regularizar el local, dado que incumple esta Ordenanza, el local deberá ser cerrado, previa audiencia a los interesados.

*Artículo 11. Caducidad del derecho al ejercicio.*

El transcurso ininterrumpido, por cualquier causa, de seis meses de inactividad del local supondrá la caducidad de la autorización para el ejercicio de la actividad.

La pretensión del reinicio del ejercicio de la actividad deberá ir precedida de la presentación de una nueva comunicación previa, no siendo necesaria la presentación nuevamente de la documentación técnica si no hubieren variado ni las condiciones del local ni la normativa técnica de aplicación.

*Artículo 12. Seguro de responsabilidad civil.*

Los locales deberán disponer de una póliza de seguro de responsabilidad civil con cobertura mínima de 150.000 euros que proteja a las personas usuarias y sus pertenencias ante cualquier siniestro que ocurra en él así como a terceros.

*Artículo 13. Contrato.*

Todo local que sea utilizado para los fines regulados por esta Ordenanza deberá contar con un contrato de arrendamiento o de cesión firmado por el propietario del local y las personas usuarias del mismo.

En caso de que los usuarios sean menores de edad el documento será firmado por sus padres o tutores legales.

*Artículo 14. Aplicabilidad general.*

Los requisitos y medidas correctoras exigidos por esta Ordenanza tienen carácter de reglas generales de aplicación a todos los locales afectados por la misma. No obstante, y cuando se justifique de forma suficientemente razonada, el Ayuntamiento podrá eximir de su cumplimiento proponiendo la solución excepcional más adecuada.

TÍTULO III

RÉGIMEN DISCIPLINARIO

*Artículo 15. Actividad inspectora y de control.*

La inspección de los locales e instalaciones así como de las actividades que se desarrollen en los locales se llevará a cabo por la Policía Municipal así como por aquellos otros funcionarios habilitados para la inspección, en los casos en que se requiera especialización técnica, los cuales serán considerados a todos los efectos como agentes de la autoridad.

A tal efecto, los servicios técnicos municipales llevarán a cabo cuantas inspecciones estimen oportunas para comprobar el correcto funcionamiento de las instalaciones y el cumplimiento de las medidas correctoras impuestas así como las condiciones señaladas en el Anexo I de esta Ordenanza.

De toda visita de inspección se levantará un acta descriptiva de los hechos que puedan ser motivo de irregularidad o infracción, acta en la que se harán constar las alegaciones que formule el responsable del local. Dicha acta irá firmada por el

EK\CV GAO-I-2015-02166

beharko dira. Aipatutako akta ikuskaritza egiten duen udaltzainak edo udal teknikariak eta lokalaren arduradunak sinatu beharko dute.

Akta horiek ziurtasun-presuntzioa eta froga balioa izango dute, administratuek beren interesen alde aurkeztu ditzaketen gainerako frogei kalterik egin gabe.

*16. artikulua. Administrazio-ahalmenak.*

Ikuskaritza horiek administrazioak berak egingo ditu ofizioz edo parte batek salaketa idatzia jarri eta gero egindako eskabidez. Edozein unetan egin daitekeen ofiziozko ikuskaritza eskumenari kalterik egin gabe, gutxienez urtean ikuskaritza bat egingo da.

Administrazioak ondorengo eskumenak izango ditu:

a) Lokalak eta instalazioak ikuskatzea.

b) Lokaletan burutzen diren jardueren eta ekintzen kontrola.

c) Debekatzea eta etetea 17 artikuluan jasotzen diren jarduerak, eta Ordenantza honetan aurreikusten diren gainerako segurtasun neurriak hartzea.

d) Ordenantza honetan sailkatzen diren arau-hausteak zigortzea.

*17. artikulua. Jarduerak debekatzea eta etetea.*

Eskumena duten administrazio-aginteek debekatu edota bertan behera utz ditzakete lokalotako jolas-jarduerak, baldin eta:

a) Jarduerok erantzukizun adierazpenik ez dutenean edo eska dakizkiekeen segurtasun, osasungarritasun edo higiene baldintzak betetzen ez badituzte.

b) Jarduerok derrigorrezko baimenik ez dutenean edo emandako baimenean eskatzen zaizkien betekizunak betetzen ez dituztenean.

c) Pertsonentzako eta ondasunentzako benetako arriskua dagoenean.

d) Bizilagunen eskubideak kaltetzen dituzten desorden larriak gertatu edo gertatuko direla aurreikusten denean (zarata handia, zikinkeria).

*18. artikulua. Lokalak ixtea eta prezintatzea.*

Agintari aginpidedunek, aurretiazko komunikaziorik ez duten lokalak eta instalazioak itxi eta prezintatu egin ditzakete, aurretik, interesatuei entzun eta gero.

Halaber, agintari aginpidedunek neurriak har ditzakete, pertsonen eta ondasunen segurtasuna edo osasungarritasun publikoa eta bizilagunek ingurumen egokia izateko duten eskubidea arrisku larrian jarri ditzaketen lokalen eta instalazioen aurka, lokalok eta instalaziook aurretiazko komunikazioa edo funtzionatzeko baimena izan arren.

Arrisku hori berehalakoa dela sumatzen bada, neurri horiek interesatuari entzun gabe har daitezke, alegazioak aurkezteko epea gero emanaz.

Beste talderen batek erabiltzeko asmoa edukiz gero, berriro ere baimena eskatu beharko dute. Udalak baldintza berriak jarri ditzake.

*19. artikulua. Arau-hausteak.*

Arau-hauste arin, larri edo oso larritzat hartuko dira ordenantza honen xedapenen kontra doazen ekintza edota betetzen ez direnak.

A) Arau-hauste arina izango da:

— Lokala baimenik gabe irekitzea.

— Ordutegia ez errespetatzea.

— Zaratza maila gainditzea.

agente de la autoridad que realice la inspección y el responsable del local.

Estas actas gozarán de la presunción de certeza y valor probatorio, sin perjuicio de las demás pruebas que, en defensa de los respectivos intereses, puedan aportar los administrados.

*Artículo 16. Facultades administrativas.*

Las inspecciones se realizarán de oficio por la Administración o a instancia de parte mediante la correspondiente denuncia escrita. Sin perjuicio de la facultad de inspección de oficio en cualquier momento, se llevará a cabo al menos una inspección anual.

La Administración tendrá las siguientes facultades:

a) Inspección de locales e instalaciones.

b) Control de la celebración de actos y actividades que se desarrollen en los locales.

c) Prohibición y suspensión de las actividades en los supuestos recogidos en el artículo 17 y adopción del resto de medidas de seguridad previstas en esta Ordenanza.

d) Sanción de las infracciones tipificadas por esta Ordenanza.

*Artículo 17. Prohibición y suspensión de actividades.*

Las autoridades administrativas competentes podrán prohibir y en caso de estar celebrándose, suspender las actividades recreativas cuando:

a) Se celebren en locales que carezcan de declaración responsable o no reúnan las condiciones de seguridad, salubridad e higiene exigibles.

b) Carezcan de las autorizaciones preceptivas o se incumplan los requisitos de la autorización concedida.

c) Exista un peligro cierto para personas y bienes.

d) Ocurran o se prevean graves desórdenes que menoscaben los derechos de los vecinos por exceso de ruido, suciedad, etc.

*Artículo 18. Clausura y precinto de locales.*

Las autoridades competentes podrán proceder, previa audiencia a los interesados, a la clausura y precinto de los locales que carezcan de comunicación previa.

Así mismo, y aun tratándose de locales con comunicación previa o autorización de funcionamiento, podrán adoptar cuantas medidas sean necesarias cuando se detecten deficiencias que hagan peligrar gravemente la seguridad de personas y bienes o el derecho a un medioambiente adecuado del vecindario.

Cuando se aprecie peligro inminente estas medidas podrán adoptarse sin necesidad del trámite de audiencia previa.

Si algún otro grupo tuviera la intención de utilizarlo, está obligado a solicitar de nuevo el permiso. Asi, el ayuntamiento podrá imponer nuevas condiciones.

*Artículo 19. Infracciones.*

Las acciones u omisiones que contravengan las disposiciones de la presente Ordenanza se tipifican como infracciones leves, graves y muy graves.

A) Constituye infracción leve:

— Abrir los locales sin permiso.

— No respetar el horario.

— Superar el nivel de ruido permitido.

EK\CV GAO-I-2015-02166

— Udalak jarritako baldintzak ez errepetatzea.

B) Arau-hauste larriak izango dira honakoak.

— Datuak ezkutatzea eta jardueraren jabeei eskatutako datuak eman nahi ez izatea.

— Udalaren ikuskatzailetza lanari era aktiboan nahiz pasiboan oztopoak ipintzea.

— Hautemandako gabeziak zuzentzean Administrazioaren eskakizunak ez betetzea.

— Urte beteko epean hiru arau-hauste arin egitea.

C) Arau-hauste oso larria izango da.

— urtebeteko epean 3 arau-hauste larri egitea.

— Udalak lokal itxi edo prezintatu badu, lokalean sartzea.

*20. artikulua. Zehapenak.*

a) Arau-hauste arinak eginez gero 750 eurora bitarteko isuna ipiniko da edota ezingo da lokala okupatu astebeteko epean.

b) Arau-hauste larriak eginez gero 1.500 eurora bitarteko isuna ipiniko da edota ezingo da lokala okupatu hiru hilabete bitarteko epean.

c) Arau-hauste oso larriak eginez gero 2.500 eurora bitarteko isuna ipiniko da eta arau-haustea burutu duten gazteek ezingo dute beste edozein lokal okupatu.

*21. artikulua. Preskripzioaz.*

Ordenantza honetan aipatzen diren arau-hauste arinak sei hilabeteko epean preskribatuko dira, bi urteko epean larriak eta hiru urteko epean oso larriak. Preskribazio epea egintza burutzen denetik edo kaltea detektatzen denetik hasita zenbatuko da, baldin eta kaltea berehalakoa izango ez balitz.

Zehapen arinak sei hilabeteko epean preskribatuko dira, bi urteko epean larriak eta hiru urteko epean oso larriak.

*22. artikulua. Behin-behineko neurriez.*

Zigor-espedientea irekitzeko aginpidea duten organoek, edozein unetan, behin-behineko zenbait neurri har ditzakete, betiere arrazoiak eskainiz, baldin eta neurri horiek beharrezkoak eta egokiak badira balizko erabakiaren eraginkortasuna ziurtatzeko, arau-hausteen ondorioek bere hartan jarraitzea eragozteko eta pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko.

Hona hemen har daitezkeen neurri horiek:

1) Jarduera aldi baterako bertan behera uztea, bere osotasunean edo zati batean, edo haren ordutegia murriztea.

2) Pertsonentzako, establezimenduetarako edo instalazioetarako behin-behineko segurtasun neurriak hartzea, jarduerarekin zerikusia duten elementuak -arrisku-iturri direnak edo eragozpenak sortzen dituztenak-erretiratzea edo behin-behineko zigilatzea barne.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza honetan ezarritako araubidea bete beharrekoa da, gainerako administrazio publikoek bakoitzak bere eskumenei jarraikiz egin litzaketen jarduketak alde batera utzita.

Ordenantza honetan aurreikusten ez diren kasuetarako, Ingurugiroa zaintzeko otsailaren 27ko 3/1998 Legea eta Lurzoru eta Hirigintzako ekainaren 30eko 2/2006 legea aplikatuko dira.

— No respetar las condiciones impuestas por el ayuntamiento.

B) Constituyen infracción grave:

— La omisión de datos y la negativa a facilitar los que sean requeridos a los titulares de la actividad.

— La obstrucción activa o pasiva o negativa a la labor inspectora del Ayuntamiento.

— El incumplimiento de los requerimientos de la Administración para la corrección de las deficiencias detectadas.

— La comisión de tres faltas leves en el plazo de un año.

C) Constituyen infracción muy grave:.

— La comisión de 3 faltas en el plazo de un año.

— Acceder al local, en el caso de que el Ayuntamiento lo haya cerrado o precintado.

*Artículo 20. Sanciones.*

a) Las infracciones leves serán sancionadas con multa de hasta 750 euros y/o imposibilidad de ocupación del local por un periodo de una semana.

a) Las infracciones graves serán sancionadas con multa de hasta 1.500 euros y/o cierre temporal del local por un periodo de hasta tres meses.

c) Las infracciones muy graves serán sancionadas con multa de hasta 2.500 euros y/o la imposibilidad de ocupar cualquier otro local por los jóvenes que hayan cometido la infracción.

*Artículo 21. Prescripción.*

Las infracciones tipificadas por esta Ordenanza prescribirán a los seis meses las leves, al año las graves y a los dos años las muy graves. Dicho plazo de prescripción se computará desde la comisión del hecho o desde la detección del daño si este no fuere inmediato.

